

Jostailuen Gaztelua



BEZEROEKIKO HARREMANA.

Gure bezeroarekin daukagun tratua zuzenena eta onena izaten saiatuko gara, gure helburu garrantzitsuenetako bat bezeroak gurekin parte hartzerakoan eroso sentitzea baitelako. Aldi berean, bezeroen artean komunikazioa egotea gustatuko litzaiguke (web gune baten bidez, Facebook kontuaren bitartez, App bat sortuko dugu...)

Bezeroak gurekin kontaktuan jartzeko gure web gunean (@jostailuentxokoa) telefono zenbakia (676454989) eta korreoa (jostailuen.liburutegia@gmail.com) eskuragarri izango dute, jakina beti ere gure lokalera etorri daitezke. Jostailuak akatsen bat baldin badute edo erabileraren ondorioz hausten badira gurekin kontaktuan jarri beharko dira. Modu horretan, ahalik eta azkarren irtenbideren bat bilatzen saiatuko gara arazoari aurre egiteko.

Bezeroen iritziak, ideiak eta proposamenak kontuan hartuko ditugu. Horretarako, lokalean bertan postontzi bat jarriko dugu bertan proposamenak, ideia berriak... uzteko eta guk irakurriko eta kontuan hartuko ditugu. Gainera, gure web gunean proposamenerako, berrikuntzetarako... atal bat irekiko dugu, bertan idatzi ditzaten. Facebook-en ere foru bat irekiko dugu, iritziak, proposamenak eta berezoen artean josatiluak etab. komentatu eta gomendatu ditzaten.

Web orrian eta saresozietan eskaintzen ditugun erreztasunez aparte, mugikorrean deskargatu daiteken APP-a eskaintzen diegu gure bezeroei. Jostailuen liburutegiaren funtzionamendua, informazioa, berrikuntzak, ordutegiak... errazteko eta beti eskuragarri izateko. Gainera, APP honen bidez eskerak egitea posible izango dute behar duten bezeroek.

Bezeroek gurekin harremanetan jartzeko bide desberdinak eskaintzen ditugunez, komunikabide desberdinetan bezeroek idazten digutena gainontzezkoetan banatzeaz arduratuko gara, gure zerbitzuari buruzko foru desberdinetan informazio eta mezu berdinak agertu daitezten.